

EUSKADIKO  
**Erosketa eta  
kontratazio publiko  
BERDEA**

2005-2020

Arrakasta istorio bat



© IHOBE S.A. 2020

Edita: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa /  
Sociedad Pública de Gestión Ambiental

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila - Eusko Jaurlaritza  
Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente - Gobierno Vasco

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. solairua  
48011 Bilbao  
info@ihobe.eus  
www.ingurumena.eus  
www.ihobe.eus

# Aurkibidea

1.	Ikuspegia eta konpromisoa.....	2
2.	Printzipioak eta balioak.....	3
3.	Ibilbidea.....	4
4.	Emaitzak.....	8
5.	Arrakastaren gakoak .....	17
6.	Etorkizunari begira.....	25
7.	Eranskinak.....	26

# 1. Ikuspegia eta konpromisoa


Azken 15 urteotan, Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen historia epe luzeko ikuspegiaren eta konpromisoaren emaitza da.

Euskadik jasangarritasunarekiko duen konpromisoa sendoa eta egonkorra da. Euskadik apustu egin du nazioarteko eta Europako konpromisoak bere testuingurura eta errealitatera eramatearen alde, eta eskualde aitzindari bihurtu da garapen-eredu jasangarriagoetarako trantsizioan.

**2002an, Euskadik ikusi zuen kontratazio publikoak tresna estrategiko eta eraldatze-tresna gisa duen garrantzia, ekoizpen- eta kontsumo-eredu arduratsu, jasangarri, lehiakor eta berritzaile bilakatzeko.** Eta sektore publikoak merkatuan duen eginkizun eragile eta eredugarria barneratu zuen.

Horren isla da Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategiak (2002-2020) Euskadiren helburu gisa jarri izana **“irizpide ekologikoak barne hartzen dituen erosketa publikoen politika sustatzea”**. Helburu hori, urratsez urrats, ibilbide luzeko prozesu batean gauzatu da, lhobek –Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak– bultzatu eta erraztu duena, euskal administrazioen eta enpresa-sektorearen artean koordinatuta eta haien arteko lidergo partekatutik abiatuta.

Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen historia eta ibilbidea **Euskadik Agenda 2030eko Garapen Jasangarrirako 12.7. Helburuari egindako ekarpena da:** “Jasangarri diren kontratazio publikoko praktikak sustatzea, politika eta lehentasun nazionalekin bat etorritz”.



## 2. Printzipioak eta balioak


Balioak dira historia honen arima.

Erosketa eta kontratazio publiko berdea Euskadin ezartzeko eta hedatzeko urrats bakoitza gidatzen duten printzipioak dira.

- **Erreferentzia:** Europako erosketak berdeko esperientzia aurreratuenetako bat izatea eta parte hartzea. Zubia izatea eta nazioarteko joerak eta ikuspegiak eta euskal errealitatea konektatzea.
- Epe luzearako planteamendu batean **jarraitasuna eta irimotasuna** izatea, jakinik sentitzeko, pentsatzeko eta egiteko moduetan aldaketak sartzeak denbora eta malgutasunaren eta determinazioaren arteko oreka eskatzen dituela.
- **Ezagutza eta zorrotasuna** prozesuaren eta erakundearen eskura jartzea, sentsibilizatzeko, hurbiltzeko, ekintza praktikoa errazteko eta aurrera egiteko oinarri gisa.
- Gauzak egiteko moduen **erraztasuna eta hurbiltasuna** dela-eta, komunitate bat sortu da, oraindik esploratu gabe dauden eremuetan aurrera egiten jarraitzeko jakintza, esperientziak eta gogoak partekatzen dituenak.
- Erakunde bakoitzaren **konpromisoa eta erantzukizuna**, maila kolektiboan, erosketak publikoetan ingurumen-irizpideak txertatzeko prozesuarekin.
- **Entzutea eta berritzea**, arian-arian aurrera egiteko irizpideak, esperientziatik ikasiz, antena izanik, helburuak berrikusiz eta arautuz, eta ikuspegiak eta gauzak egiteko moduak birpentsatuz.
- **Inpaktua bilaketa eta amaiera gisa:** kontratazio eta erosketak berdearen aldeko konpromisoa eta ekintza arduratsua benetako hobekuntzak izatea.

## 3. Ibilbidea

### 2005-2020, 4 etapatan



Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020n definitutako konpromiso politikotik abiatuta, erosketa eta kontratazio publiko berdearen ibilbideak **4 etapa** ditu Euskadin:

- **Martxan jartzeko lehen etapa bat.** 2005ean, lhobek bere kontratuen ingurumen-egokitzapenerako prozesua abian jarri zuen barne-mailan, eta Eusko Jaurlaritzarekin, foru-aldundiekin eta Euskadiko udalekin gogoeta eta praktika partekatu zituen, ekintzara bultzatzeko helburuarekin.  
Bestalde, lhobe enpresa hornitzaileekin lanean hasi zen eskaintako produktuen eta zerbitzuen ingurumen-kalitatea hobetzeko. Denborak aurrera egin ahala, hori izan da prozesuaren arrakastaren gakoetako bat: eskaintzaren eta eskariaren arteko koordinazioa, batez ere Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen ingurumen-irizpideen definizioan.
- **2008, funtsezko urtea.** Eusko Jaurlaritzak "Gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk Euskal Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan txertatzeari buruzko erabakia" onetsi zuen, eta "Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburua"ren lehen bertsioa argitaratu zen. Beraz, esparru politikoa eta oinarrizko baliabideak eta tresnak zehaztu ziren, euskal sektore publikoak kontratazioan ingurumen-irizpideak txertatzeko urratsak egin zitzaizkien.
- **2011-2014 aldian ezarri** zen Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen lehen programa. Programa horrek bidea irekitzen lagundu zuen: kontratazio berdea diskurtso politikoan eta erakunde publikoen jardueran txertatu zen. Etapa horretan, 80 erakunde publikok laguntza eskatu zuten beren kontratazio-prozesuetan ingurumen-klausulak sartzeko.

- **2015-2020 aldian, arloan funtsezkoak diren eragileen arteko lankidetzak eta lan-harreman adierazgarriak sendotu ziren.** Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen bigarren Programarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko harremana finkatu zen, eta horrek euskal administrazio osoan erosketak publiko berdea hedatzeko agertokia erraztu zuen. Gainera, erakunde batzuek jauzi kualitatiboa egin zuten kontratazioaren ingurumen-egokitzapenari dagokionez eta beren antolamendu-egituretan prozesua sistematizatzeari dagokionez.

## Eraikitako bidea

Denbora horretan, Euskadik erosketak eta kontratazio publiko berdean egin duen ibilbidea erreferentea izan da nazioartean, ematen duen balioagatik eta inspirazioagatik.

**3 ardatz edo eremutan** hartutako erabakien eta jarduketan batura egokiaren emaitza da:

- Konpromiso politikoa eta plangintza: esparrua
- Ezagutza eta gaikuntza sortzea: baliabideak eta tresnak
- Egituraketa eta lidergo partekatua: eragileen sarea

Honekin batera doan taulan jasota dira erosketak eta kontratazio publiko berdea diseinatzeko, ezartzeko eta hedatzeko estrategiaren ardatzak osatzen duten erabakiak eta jarduketak garrantzitsuak eta adierazgarriak.

**Ibilbide luzeko konpromisoa.**

**Irrotasunaren, ikaskuntzen eta arrakasten historia.**

Taula: 2005-2020 aldiko erabaki eta jarduketa garrantzitsuen bilduma


Ardatzak	2005-2007	2008-2010	2011-2014	2015-2020
<b>Konpromiso politikoa eta plangintza: esparrua</b>	<p>Administrazioaren jarrera eredugarriari lotutako <b>konpromiso politikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurumen Esparru Programa, 2007-2010</li> <li>• Ingurumenaren aldetik Jasangarria den Euskal Kontsumo Plana, 2006-2010</li> </ul>	<p><b>Konpromiso eta bultzada politikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2008ko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk Euskal Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan txertatzeari buruzkoa</li> </ul>	<p><b>Plangintza publikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Lehen Programa (2011-2014), EAeko III. Ingurumen Esparru Programarekin (2011-2014) lerrotatuta</li> </ul> <p><b>Aldeko legegintza-testuinguruan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratazio Publikoaren Europako Zuzentarauen erreforma, 2014</li> </ul>	<p><b>Plangintza publikoa:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Bigarren Programa (2020), IV. Ingurumen Esparru Programarekin (2020) bat etorritz</li> <li>• Adierazleen kalkulua eta emaitzak. 2016-2020 aldiko urteko jarraipen-txostenak</li> </ul> <p><b>Aldeko legegintza-testuinguruan:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena</li> <li>• 2/2018 gomendioa: Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea</li> <li>• 4/2019 Legea, Jasangarritasun Energetikoarena</li> </ul>
<b>Ezagutza eta pertsonak gaitzea: baliabideak eta tresnak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ihoberen barne-mailan ingurumen-egokitzapena hastea: barne-prozedurak eta hornidura-kontratuak eta argitalpen-zerbitzua</li> </ul>	<p><b>Baliabideak eta tresnak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburu praktikoa, 2008</li> <li>• Produktuen ingurumen-etiketak. Produktuak hobetzeko ingurumen-irizpideei buruzko gida, 2008</li> <li>• Erosketa berdearen atala hemen: <a href="http://www.ihobe.eus">www.ihobe.eus</a></li> <li>• Baldintza-agirietan ingurumen-arloko irizpideak txertatzeko zerbitzua abian jartzea: 108 eskaera erantzun dira</li> <li>• 27 jardunbide egoki argitaratu dira</li> </ul> <p><b>Gaikuntza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioako langileei prestakuntza ematea: 12 prestakuntza-jardunalditan 397 pertsonak parte hartu dute; eta 7 irizpide-kontrasterako foro antolatuta dira 83 pertsona inplikaturekin</li> </ul>	<p><b>Baliabideak eta tresnak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Produktu eta zerbitzu berrietarako irizpideak prestatzea</li> <li>• Baldintza-agirietan ingurumen-egokitzapena txertatzeko zerbitzua: 174 eskaera erantzun dira</li> <li>• 27 jardunbide egoki argitaratu dira</li> <li>• Gidak, txostenak eta bestelako material lagungarriak: 7 argitalpen</li> </ul> <p><b>Gaikuntza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioako langileei prestakuntza ematea: 8 prestakuntza-jardunalditan 188 lagunek parte hartu dute; eta 4 irizpide-kontrasterako foro antolatuta dira 77 pertsona inplikaturekin</li> </ul>	<p><b>Baliabideak eta tresnak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Produktu eta zerbitzu berrietarako irizpideak prestatzea</li> <li>• Ingurumen-irizpideak eguneratzea eta sinplifikatzea</li> <li>• Zuzeneko erosketarako irizpideak prestatzea</li> <li>• Baldintza-agirietan ingurumen-egokitzapena txertatzeko zerbitzua: 498 eskaera erantzun dira</li> <li>• 24 jardunbide egoki argitaratu dira</li> <li>• Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian jaso dituzten Euskal Administrazioaren baldintza-agirien 12 adibide argitaratu dira</li> <li>• Gida praktikoak, txostenak eta bestelako material lagungarriak: 34 argitalpen</li> <li>• Web atala eguneratzea hemen: <a href="http://www.ihobe.eus">www.ihobe.eus</a></li> </ul> <p><b>Gaikuntza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazioako langileei prestakuntza ematea: 37 prestakuntza-jardunalditan 1.238 pertsonak parte hartu dute; eta 6 irizpide-kontrasterako foro antolatuta dira 106 pertsona inplikaturekin</li> </ul>
<b>Egituraketa eta lidergo partekatua: eragileen sarea</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantaldea udalekin eta aldundiekin</li> <li>• Elkarriketa-foroak produktuak eta zerbitzuak hornitzen dituzten enprekin: eskaintzaren eta eskariaren koordinazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lantaldea: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila eta foru-aldundiak</li> <li>• Lantaldea euskal hiriburuekin</li> <li>• Lantaldea beste udalerrri batzuekin</li> <li>• Elkarriketa-foroak produktuak eta zerbitzuak hornitzen dituzten enprekin: eskaintzaren eta eskariaren koordinazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berrikuntza-erosketako lantalde pilotuak</li> <li>• Eraikuntza eta eraikingintzarako erosketa eta kontratazio publiko berdeko erakunde arteko lankidetzeta-mahaia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Programaren gobernantza-eredua: Eusko Jaurlaritzako sailez osatutako talde bultzatzailea eta programari borondatez atxikitako erakunde-taldea</li> <li>• Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programari atxikitako erakunde sarea sortzea eta kudeatzea: 38 erakunderen lidergoa</li> <li>• Lantalde pilotua lizitazioetan bizi-zikloaren kostuak aplikatzeko</li> </ul>



## Mugarri adierazgarriak

Multzo horretatik, mugarri adierazgarri batzuek jauzi kualitatiboa ekarri diote prozesuari, duten balioagatik eta inpaktuagatik. Honako hauek dira:

### • Esparru politikoa:



### • Baliabideak eta tresnak:

- Erosketa eta kontratazio publiko berdearen eskuliburu praktikoa eta hura etengabe zabaltzea eta eguneratzea [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webguneko erosketa berdearen atalean. 30 produktukategoriarekin, ingurumen-irizpideak erosketa-prozesuetan txertatzeko erreferente eta gida bihurtu da.
- Baldintza-agirien ingurumen-egokitzapenerako zerbitzuak 2009. urteaz geroztik aholkularitza pertsonalizatua, bermea eta segurtasuna eskaintzen dizkie baldintza-agirietan ingurumen-egokitzapena txertatzen duten euskal erakundeek.
- Euskal administrazioen jardunbide egokiak eta baldintza-agirien adibideak argitaratzea: Euskadin garatzen ari diren esperientzia praktikoak identifikatzeko, erreplikatuak izan daitezkeen hedatzeko eta haiek aitortzeko sistema bat da.
- Gida, txosten eta laguntza-materialak argitaratzea eta antolatutako prestakuntza-jardunaldiak: pertsonak eta erakundeak gaitzea eta kalitatezko ezagutza eta ezagutza berritzailea sortzea ardatz egituratzailea izan dira Euskadik erosketa berdearen alde egin duen apustuan.
- Ingurumen-irizpideak kontrastatzeko foroak, eskaintza eta eskaria inplikatzeko dituztenak: guztira 17 foro antolatu dira, eta 266 pertsonak parte hartu dute.

### • Egituraketa eta lidergo partekatua:


- 2005. urteaz geroztik sortutako lantalde ugari eta askotarikoak, parte hartzeko, lankidetzan aritzeko, koordinatzeko eta sarean lan egiteko gune gisa ulertuta, euskal administrazioak nahiz enpresa hornitzaileak protagonista dituztenak.
- Gobernantza- eta lidergo-eredu partekatua, azkenean sortu dena, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta programari atxikitako erakunde-sarearekin.

## 4. Emaitzak

Urratsez urrats, kontratazio publiko berdea finkatzen doa euskal administrazioan. Indartu egin da Euskadiko ingurumen-politikak eta garapen ekonomikokoak lortzeko tresna estrategiko gisa duen eginkizuna.

15 urte hauetan erosketara eta kontratazio publiko berdearen programen **plangintza ona eta betetze-maila handia** lortu izanak emaitzak lortzen lagundu du honako hauetan:

- Erosketara eta kontratazio publikoaren ingurumen-egokitzapenaren maila
- Erosketara berdearen sistematizazioa erakunde aurreratueneretan
- Euskal merkatua pixkanaka egokitzea
- Laguntza-baliabideen plataforma sendoa eta askotarikoa sortzea
- Euskadik nazioartean duen posizionamendua



## Euskal administrazioaren erosketaren berdearen maila lizitazio guztien % 24 ingurukoa da.

Euskadik erosketaren eta kontratazio publikoaren ingurumen-egokitzapenaren maila **neurtzen du** 2009az geroztik. Kalkulu-metodoak etengabe hobetzen eta eboluzionatzen jarraitzen du, ahalik eta sistematizazio, trazabilitate eta konparagarritasun handiena bilatzeko.

Urteko emaitzak aztertuta, baieztatu daiteke –hasiera batean ezarritako helburuak bete ez arren– euskal administrazioaren erosketaren berdea sendotu egin dela, lizitazio guztien % 24 ingurukoa baita. Ingurumen-egokitzapenaren maila hori egonkor samar mantendu da, urtez urte egiten diren lizitazioak eta bolumena aldatzen diren arren.

### Begirada bat 2019ra

Euskadiko kontratazio-plataformaren arabera, 2019an:

- Ingurumen-irizpideak 1.407 lizitazioetan txertatu dira, plataforman erregistratutako lizitazioen % 24tan, alegia.
- Horrek esan nahi du kontratazio berdearen bolumena 449.295.097,8 eurokoa dela, hau da, kontratatutako bolumen ekonomikoaren % 22.

Hona hemen ñabardura osagarri batzuk:

- **Erosketaren berdearen maila garatuagoa dago produktu-, obra- eta zerbitzu-multzo batzuentzat.** Zehazki, 2019an, paper-erosketaren eta eraikinetako garbiketako, autobus-garraioko eta lorezaintzako zerbitzuak kontratatzearen % 50 baino gehiago (bolumen ekonomikoan) berdea da.
- **Sareko erakundeak** dira prozesuaren buru.



## Programari atxikitako erakundeek ingurumen-egokitzapenaren maila handiagoak dituzte.

Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programari borondatez atxikitzeak berekin dakar **prozesua sistematizatzeko** lan egitea, honako hauetatik abiatuta:

- Berariazko konpromiso politikoa
- Erakundearen erosketen urteko plangintza
- Helburuen definizioa
- Arduradunak izendatzea
- Sailen arteko lankidetzak-lana (kontratazioa, ingurumena eta beste arlo tekniko batzuk)
- Merkatuarekiko eta hornitzaileekiko harremana
- Kontratuen jarraipena
- Emaizten neurketa

**Prozesu integrala** da, eta emaitza onak lortzen lagundu du.

2019ko informazioaren arabera, sareko erakundeen ingurumen-egokitzapenaren maila gainerako euskal sektore publikoarenaren halako bi da (bolumen ekonomikoan), eta 2020rako erosketak berdearen % 50eko helburutik oso hurbil daude.

Konparazioa:

Erakunde publiko mota	Erosketa berdearen % (zk.)	Erosketa berdearen % (€-tan)
Atxikitako erakundeak	% 39	% 46
Euskal sektore publikoa	% 24	% 22

Iturria: Euskadiko kontratazio-plataformako "Kontratatzailearen profiletik" lortutako datuak

**Programari atxikitako erakundeen sarearen kudeaketak berak**, lankidetzaren, ikaskuntza kolektiboaren eta lidergo banatuaren eredian oinarrituta, emaitza horiek lortzen lagundu du. Elkarri laguntzeak, lanerako eta ezagutzarako guneak partekatzeak eta erronka kolektiboak identifikatzeak banakako nahiz taldekako bultzada bat ekarri dute.

## Euskal enpresak prestatuta daude ingurumen-eskariei erantzuteko

2019an lehen aldiz neurtu da ingurumen-irizpideak dituzten Euskadiko lizitazioen enpresa esleipendunen jatorria.

Azterketak erakusten du euskal enpresak honen esleipendun direla:

- Ingurumen aldetik egokitutako lizitazio guztien % 72
- Ingurumen aldetik egokitutako lizitazioen bolumen ekonomikoaren % 80

Hona hemen xehetasunak:

Enpresa esleipendunen jatorria	Euskadikoak	Euskaditik kanpokoak	Euskadiko enpresen %
Lizitazio-kopurua guztira	4.145	1.684	% 71
Lizitazio guztien bolumen ekonomikoa	836.476.155,79	1.168.639.695,69	% 58
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen kop.	1.007	400	% 72
Ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioen bolumen ekonomikoa	357.537.918,26	91.757.179,57	% 80

Ratio horiek erakusten dute **euskal enpresak oso prestatuta daudela** ingurumen-irizpideak dituzten lizitazioei erantzuteko. Horrez gain, erosketa eta kontratazio publiko berdeak merkatuan eragiteko **tresna estrategiko** gisa duen ahalmena adierazten da, eta, horrekin batera, herrialdeko ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-politiketan laguntzekoa.



## Euskadik laguntza-baliabideen plataforma sendoa sortu du

Kontratazioaren ingurumen-egokitzapenerako prozesuari buruzko **ezagutza, ikaskuntza eta esperientzia kolektiboa** sortzea beti izan da helburu eta konstante bat. Inplikaturako eragileak prestatzeko eta gaitzeko apustu irmoa egin da: arduradun politikoak, ingurumen-teknikariak, erosketak eta kontratazioa edo bestelakoak, eta enpresak.

Ondorioz, Euskadik **laguntza-baliabideen eskaintza sendoa** du estaldura teknikoa eta segurtasun juridikoa ematen dituen, eta euskal administrazioetan erosketa berdea hedatzen laguntzen duena –eta lurraldetik kanpoko beste eragile batzuk inspiratzen dituen–.

Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdean laguntzeko baliabide nagusiak [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) erosketa publiko berdearen webgunean daude eskuragarri

- Lehentasunezko produktuen eta zerbitzuen 30 kategoriatarako ingurumen-irizpideak; kategoria bakoitzean dokumentazio espezifikoa sartzen da, ingurumen-irizpideekin, irizpide sinplifikatuekin, zuzeneko erosketarako irizpideekin, jardunbide egokiekin eta baldintza-agirien adibideekin.





Euskadiko erosketara eta kontratazio publiko berdean laguntzeko baliabide nagusiak modu irekian eta eskuragarri daude [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webguneko erosketara publiko berdearen atalean.

- 790 eskaera aholkularitza pertsonalizatuko zerbitzuari, lizitazioetan ingurumen-klausulak sartzeko moduari buruz eta aurkeztutako eskaintzen ondorengo balorazioa egiteko moduari buruz.
- 50 gida praktiko, txosten eta bestelako material lagungarri baino gehiago argitaratu dira hainbat gai buruz:

Argitalpenen gaiak	Argitalpenen kopurua
Erosketara eta kontratazio publiko berde hobe lortzeko argitalpen praktikoak	5
Eremu berrietan	3
Erosketara berdearen eta dibulgaziozkoen onurei buruz	4
Eraikuntza eta eraikuntza jasagarriari buruz	9
Programa eta konpromiso politikoei buruz	4
Bestelakoak	28
<b>Guztira</b>	<b>58</b>

Informazio gehiago nahi izanez gero, dokumentu honen **eranskinean** argitalpenen xehetasunak jaso dira.

Garrantzitsua da nabarmentzea gidak oso ikuspegi praktikoarekin lantzeko egindako ahalegina, hala nola:

“Ohiko akatsak kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak txertatzean”	“Ingurumen-ziurtapenak erosketara eta kontratazio publikoan erabiltzeko gida praktikoa”	“Erosketara publiko berdearen eta bizi-zikloaren kostuen azterketaren gidaliburua”

- 78 jardunbide egoki argitaratu dira, eta erosketara berdea euskal administrazioan txertatzeko adibide eta esperientzia zehatzak erakusten dituzte. Dokumentu honen **eranskinean** ageri dira haien xehetasunak.
- Ingurumen-irizpideak modu eredugarrian jaso dituzten Euskal Administrazioaren **baldintza-agirien 9 adibide argitaratu dira**.
- **Prestakuntza espezializatua:** 2008az geroztik erosketara berdeko 57 prestakuntza-jardunaldi antolatu dira, eta 1.823 pertsonak jaso dute prestakuntza espezifikoa. Gainera, irizpideak kontrastatzeko 17 foro antolatu dira, eta 266 pertsonak parte hartu dute bertan.

## Euskadi erreferentea da bere hedapen-estrategian

Bere ambizioa, laguntza tekniko espezializatua eta inplikaturako eragileen mobilizazioa direla eta, Euskadiren estrategia gai horretan aurreratuen dauden Europako estatuetako eta eskualdeetako gobernuen ekimenen buruan dago.

Euskal estrategia **Europan eta nazioartean aintzatetsi** da, eta hainbat sari jaso ditu:

- Lehenengo saria "2020 Sustainable Purchasing Leadership Awards" sarietan, erosleen kategoria orokorrean, "Sustainable Purchasing Leadership Council" erakundeak emandakoa 2020an.
- Procura+ saria, ICLEI jasangarritasunaren aldeko tokiko gobernuen sarearen Procura+ sareak 2019an emana.
- "El Diamante de la Compra" saria, Espainiako Erosketa, Kontratazio eta Hornidura Profesionalek, AERCEk, 2019an emandakoa.
- Sustainable Purchasing Leadership Council-ek 2018an Azterketa Kasutzat hartzea.
- Aitortza Eskualde Jardunbide Egokien II. Sarian, ORU Fogar-ek eta Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) 2017an egindako deialdian.
- Europako Batzordeak jardunbide egokitzat hartzea erosketa publiko berdearen arloan, 2017an.
- "Hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko tokiko esperientzien gidan" sartutako esperientzia, 2017an Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak egindakoa.
- Ingurumen-irizpideak garatzeko prozesua jardunbide egokitzat aitortzea Life GPP Best Europako proiektuan, Ecosistemi Fundazioak zuzendutakoan, 2016an.
- Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) karbono gutxiko ekonomia bateranzko trantsiziorako erreferentziatzat hartzea 2011n.





## Sareko erakundeen erosketa eta kontratazio publiko berdeko beste jarduketak batzuk ere aitortu dira:

- Europako Batzordeak jardunbide egokitzat jo ditu 8 jarduketak ([https://ec.europa.eu/environment/gpp/case\\_group\\_en.htm](https://ec.europa.eu/environment/gpp/case_group_en.htm)) hainbat kategoriatan:
  - Sprilur eta Visesa sozietate publikoen jarduketak. Sprilur-en kasuan, urbanizazio-proiektuak diseinatzeko eta gauzatzeko prozesuan jasangarritasun-neurriak aplikatzeagatik; eta Visesakoan, berriz, etxebizitza sozialetarako altzariak eta etxetresna elektrikoak erosterakoan erabilitako irizpideengatik.
  - Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketak, nabarmentzekoa da 2 eraikinen mantentze-lanen kontratazio berdea eta ekipamendu informatikoak ingurumen-irizpideekin erostea.
  - Ilobek hornitzaileekin egindako lana altzariak ingurumen-irizpideekin egiteko.
  - Errenteriako Udalaren jarduketak, parkeak eta lorategiak mantentzeko ingurumen aldetik egokitutako zerbitzua kontratatuta.
  - Mutuliaren sarera konektatutako ur araztuaren iturrien eta ontzi berrerrabilgarrien hornidura ezartzea, bere zentroetan plastikoa ezabatzeko programaren barnean.
- 2019an eta 2020an, Health Care Without Harm Europe erakundeak jardunbide egokitzat jo du Gurutzetako Ospitaleko vending zerbitzua ingurumen-irizpideekin kontratatzea.
- 2019an, Galdakao-Usansoloko Ospitaleak poster onenaren saria jaso zuen Ospitaleen eta Osasun Kudeaketaren 21. Kongresuko "Berrikuntza kudeaketa-ereduetan" kategorian, "Jasangarriagoak izateko hobeto erostea" kategorian. Gainera, 2013an saria jaso zuen ingurumenarekiko jasangarria den erosketa-politikagatik, Osasun Kudeaketarako Espainiako Elkarteak antolatutako Zentro Sanitarioetako Ingurumen Kudeaketarako VI. Sinposio Nazionalan.

Gainera, Euskadik 12.7.1 adierazlearen lehenengo neurketan parte hartu du (“Erosketa eta kontratazio publiko jasangariaren politikak eta ekintza-planak implementatzen ari diren herrialdeen kopurua”), 12.7 GJHari erreferentzia eginez (“Jasangarri diren erosketa publikoko praktikak sustatzea, politika eta lehenetasun nazionalekin bat etorritz”).



Euskadirako adierazlearen emaitza, 2020ko informazioaren arabera:

**Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko jasangariaren politiken eta ekintza-planen implementazio-maila:**

**Euskadiko implementazio-maila = 3,72**

Oharra: Adierazlea kalkulatzeko emandako informazioa ingurumen-klausulei buruzkoa izan da

Iturria: NBIP

**Balorazioa:**

5etik 3,72ko implementazio-mailarekin, Euskadiren maila ertaina/handia da, eta ondoen baloratutako 10 lurraldeen artean kokatzen da (gobernu nazionaletatik eta nazioz azpikoetatik guztira jasotako 79 ekarpenetatik).

Gainera, Euskadik eskualdeko gobernuen 2 puntuazio altuenetako bat lortu du (39 ekarpen guztira administrazio-kategoria horretarako).

## 5. Arrakastaren gakoak

8 gako, historia hau arrakastatsu egiten dutenak eta beste batzuk inspiira ditzaketenak.

Euskadiko erosketa eta kontratazio publiko berdearen historia perspektibaz aztertzeak aukera ematen du prozesuari balio bereizgarria eman dioten 8 gako adierazgarri identifikatzeko. Hauek dira:

1. Konpromiso politikoa eta plangintza
2. Ingurumen-irizpideak prestatzea eta egokitzea
3. Enpresa-sektorearekin parte hartzea eta koordinatzea
4. Aurrerapenak esparru berrietan: beti abangoardian
5. Ingurumen-egokitzapenerako laguntza-zerbitzua
6. Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko aliantza
7. Atxikitako erakundeen sarea
8. Prozesuaren buru diren eragileak aintzatestea



## Konpromiso politikoa eta plangintza

Euskadik goiz ikusi du erosketak publiko berdea tresna estrategiko bat dela EAEko ingurumen-politikei laguntzeko, hala nola ekonomia zirkularra, klima-aldaketa eta natura-ingurunearen eta biodibertsitatearen babesa. Horregatik, erosketak jasangarriekin duen konpromiso politikoa definitzen eta zehazten duen Europako lehen eskualdeetako bat da Euskadi.

2008an, Eusko Jaurlaritzak "Gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk Euskal Administrazio Publikoaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan txertatzeari buruzko akordioa" onetsi zuen, aurrera nola egin behar den zehaztu zuen, eta lhobe izendatu zuen erreferente tekniko gisa.

Erabaki estrategiko egokia izan zen hori; harrezkero, lhobek baditu baliabideak, eta bere gain hartu du Euskadin erosketak berdearen hedapena etengabe bultzatzeko eginkizuna, EAEko administrazioei eta inplikaturako gainerako eragileei entzunez, planifikatuz eta haiekin lan eginez.

Beste faktore bereizgarri bat ekintza planifikatzea eta egituratzea izan da: orain arte Euskadik erosketak berdearen 2 programa prestatu, gauzatu eta ebaluatu ditu, aurrera egiteko behar diren egitura eta baliabideak eskaini dituztenak.

Euskadik duen konpromisoa nazioartean agerian eta jendaurrean jartzen da Eusko Jaurlaritzak honako hauei atxiki zaienean:

- Procura+ sarea, jasangarritasunaren aldeko tokiko gobernuen ICLEI elkarteak sustatua.
- Nazio Batuen erosketak jasangarriko programa.



## Ingurumen-irizpideak lantzea eta euskal errealitatera egokitzea

Hasieratik, Ihobek apustu egin du Europako lehentasunezko produktu- eta zerbitzu-taldeen ingurumen-irizpideak eta eskualderako garrantzitsuak diren beste batzuk lantzearen eta **euskal errealitatera** egokitzearen alde.

Horregatik, "Erosteke eta kontratazio publiko berdearen eskuliburu praktikoa" lankidetzan eta koordinatuta egin da bai eskaintzarekin –enpresa hornitzaileen ordezkariarekin, produktu- edo zerbitzu-motaren arabera– eta bai eskariarekin –euskal administrazio publikoa–.

Bilakaerak berak bultzatu du azken urteotan proposatutako irizpideak soiltzera, kontratazio berdea **errazteko, hurbiltzeko eta eraginkor bihurtzeko**.

Ingurumen-irizpideei buruzko informazioa publikoa da, eta eskuragarri dago Euskadiren erosketa berdearen webgunean: <https://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>

## Enpresa-sektorearekin parte hartzea eta koordinatzea

Elkarrizketa eta enpresen parte-hartzea Euskadin erosketa publiko berdea hedatzeko oinarriko printzipioetako bat izan da.

Enpresa-sektorearekiko lankidetzan modu nabarmenean zaindu da ingurumen-irizpideak lantzean.

Horri esker, irizpide errealistak eta merkatuarekin bat datozenak batera landu dira, bai eta sektore publiko eta pribatuaren ingurumen-bilakaera eta -garapena ere.

Gainera, koordinazioa beste ekimen garrantzitsu batzuetara ere zabaldu da, hala nola proiektu berritzaileak pilotatzera, ingurumen aldetik egokitutako lizitazioetarako prestakuntza espezializatua ematera eskaintzak arrakastatsuak izan daitezzen eta ekodiseinuko eta ekoetiketatzeko programetara.

Azken finean, enpresa-sektoreak eboluzionatu du eta bere eskaintza egokitu du finkatutako ingurumen-estandarretara. Horren guztiaren ondorioz, 2019an EAEko sektore publikoko ingurumen aldetik egokitutako lizitazioen % 72 euskal enpresei esleitu zaizkie.

## Aurrerapena eremu berrietan: beti abangoardian

Euskadiko erosketa publiko berdeak oreka bilatu du eguneroko praktika jarraituaren eta berrikuntza eta abangoardia bilatzearen artean.

Hainbat eremutan, Euskadik aitzindari izatea eta beste batzuekin bidea eraikitzea lortu du. Eta jarrera horri esker, esperientziak partekatu ahal izan dira eragile lider eta bultzatzaileekin (esaterako, Europako Batzordearekin edo Nazio Batuekin), eta eboluzionatu egin da erosketa publiko berdearen heldutasunerako metodologia berriak garatuz eta ezagutza sortuz.

Ildo horretan, **aurrerapen-eremu garrantzitsuenak** nabarmendu behar dira:

- Erosketa publikoaren ingurumen-egokitzapenaren maila neurtzea.
- Bizi-zikloaren kostuen irizpideak erabiltzea.

Garapen Jasangarrirako 12.7.1 Helburuaren ("Erosketa publiko jasangarrien politikak eta ekintza-planak aplikatzen dituzten herrialdeen kopurua" ) nazioarteko adierazlea lantzea. Adierazle horretan, Euskadik parte hartu du, eta ekarpena egin du adierazlea kalkulatzeko lehen ekitaldian.

## Ingurumen-egokitzapenerako laguntza-zerbitzua

Ingurumen-egokitzapenean laguntzeko eta zalantzak argitzeko lhobek bultzatutako zerbitzua faktore bereizlea izan da Euskadin erosketa berdea zabaltzean.

Doako zerbitzu hori oso erabilia da, eta oso ondo baloratzen da: sendotasun teknikoa eta legezko segurtasuna ematen ditu, eta zerbitzua eskatzen dutenak gaitzen laguntzen du.

2008an abian jarri zenetik, euskal administrazioaren maila desberdinetako **790 eskaera** jaso ditu zerbitzuak.

## Ekonomia eta Ogasun Sailarekiko aliantza

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekin eta, bereziki, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzarekin lankidetzan aritzea prozesua bultzatzeko palanka bat izan da.

Lankidetzak horrek **erraztu egin du** gai garrantzitsuetan aurrera egitea, hala nola:

- Euskadiko kontratazio publikoaren plataformako informazioa erosketa eta kontratazio publiko berdearen emaitzen neurketarekin lotzea.
- “Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen ekainaren 21eko 2/2018 Gomendia, kontratazio publikoko ingurumen-klausulei buruzkoa” lantzea eta zabaltzea. Bertan, lhobek Euskadiko erosketa berdearen erreferente tekniko gisa duen zeregina nabarmentzen da, eta Ekonomia eta Ogasun Sailak duen inplikazioa ikus daiteke.
- Prestakuntza-jardunaldiak elkarrekin antolatzea, orientazio praktikoa argiarekin. Oso harrera positiboa izan dute. Adibidez, “Ohiko akatsak ingurumen-klausulak kontratazio publikoan txertatzean, eta nola saihestu hobeto kontratatzeke” izeneko jardunaldia.



## Atxikitako erakundeen sarea

Atxikitako erakundeen sarea osatzen du beren borondatez Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programarekin eta haren helburuekin duten konpromisoa adierazi duten euskal sektore publikoko erakundeen multzoak.

Gainera, beren atxikimenduarekin, erakundeek konpromisoa hartzen dute kontratazioaren urteko plangintza bat egiteko, erosketetarako helburuak zehaztuta eta ondorengo jarraipena eginez.

2020ko abenduan **38 erakundek** osatzen zuten sarea.



Erakunde horiek Euskadiko kontratazio publiko berdearen **bilakaera positiboaren buru** dira gaur: beren ingurumen-egokitzapenaren maila (bolumen ekonomikoan) sektore publikoaren gainerakoaren bikoitza da, eta 2020rako % 50eko helburutik gertu dago.

Sarea osatzen duten erakundeen zerrenda hau da:

### Eusko Jaurlaritzako erakunde publikoak:

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) - Euskal Irrati Telebista (EITB) - Santa Marinako Ospitalea - Ihobe, S.A. - Itelazpi, S.A. - Barrualde Galdakaoko ESI - Goierri Urola Garaiko ESI - Sprilur, S.A. - URA Uraren Euskal Agentzia - Visesa, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra S.A.

### Toki-erakundeak:

Barakaldoko Udala - Bergarako Udala - Donostiako Udala - Eibarko Udala - Legazpiko Udala - Gasteizko Udala - Zamudioko Udala - Gorbeialdeko Kuadrilla - Gipuzkoako Foru Aldundia - Udaltalde 21 Nerbioi Ibaizabal, S.L.

### Beste erakunde batzuk:

Mutualia-Donostia - Eusko Legebiltzarra - Euskalduna Jauregia - Udalsarea 21 - UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea.

### Industrialdeak:

Abanto-Zierbenako Industrialdeak, S.A. - Arabako Industrialdea, S.A. - Arratiako Industrialdea, S.A. - Beterri Kostako Industrialdea, S.A. - Bidasoa Oarsoko Industrialdea, S.A. - Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A. - Deba Bailarako Industrialdea, S.A. - Goierri Beheko Industrialdea, S.A. - Tolosaldeko Apataerreaka Industria Lurra, S.A. - Urdulizko Industrialdea, S.A. - Urolako Industrialdea, S.A.



Gainera, sarea funtsezko pieza da Euskadiren erosketaren eta kontratazio publiko berdearen gobernantza-ereduan: banatutako eta esleitutako lidergoaren aldeko apustua egiten duen eredia da, eta erakunde liderrek jarduketa desberdinen baterako diseinuan parte hartzen dute.

## Prozesuaren buru diren eragileak aintzatestea

Euskal esperientzia berritzaileenak, kalitate edo inpaktu handienekoak, aintzatestea eta ikusgai jartzea ere gako garrantzitsua da. Jardunbide egokienak nabarmendu nahi izan dira, eta, hala, prozesuarekin jarraitzeko adorea eman.

Orain arte **78 jardunbide egoki** identifikatu dira guztira; taldean ikasi, inspiratu eta eboluzionatzen jarraitzeko adibideak dira.

Jardunbide egoki horien protagonistak euskal **sektore publikoaren maila** desberdinak izan dira –Eusko Jaurlaritza eta hari lotutako erakundeak, foru-aldundiak, tokiko erakundeak eta beste batzuk–, eta gai oso desberdinetan:

Jardunbide egokien gaiak	Zenbakia	Jardunbide egokien gaiak	Zenbakia
Elikadura	5	Material xurgatzailea	1
Aholkularitza	1	Bulegoko materiala	2
Kontsumo arduratsua	3	Altzariak	2
Eraikingintza/eraikuntza jasangarria	19	Mugikortasun jasangarria	2
Ekipamendu informatikoak	1	Argitalpenak	2
Estrategia	6	Hondakinen bilketa eta garraioa	1
Prestakuntza	4	Garbiketa-zerbitzuak	2
Energiaren kudeaketa	3	Sistematizazioa	13
Lorezaintza	2	Ehunkiak	1
Hondakinen garbiketa eta bilketa	1	Ibilgailuak	6
Mantentze-lanak	1		

Horiek guztiek jauzi kualitatiboa ekarri dute hainbat alderditan, hala nola:

- **Kontratazio zentralizatua**, kontratazio-zentralek bultzatu dutena, foru-aldundiek eta Nerbioi Ibaizabal Udaltaldeak garatutako ingurumen-irizpideekin.
- Erosketaren eta kontratazio berdearen **sistematizazioa**, Donostiako Udalaren, Durangoko Udalaren, EITBren edo Ihoberen baldintza-agirien ingurumen-egokitzapenean oinarrituta.
- **Baldintza-agiri adierazgarrien ingurumen-egokitzapena**; adibidez, Eusko Legebiltzarreko eraikin eta garajeak % 100 berriztagarria den energia elektrikoaz hornitzea.
- Kontratazio berderako beharrezkoa den **lankidetzaren publiko-pribatua**, *Kirol Busean Elkarrekin* esperientzian islatzen dena, eskolako kirol-garraioaren mugikortasun-beharrak birplanteatuz eta eskaeraren araberako kudeaketa optimizatuz.

Identifikatutako jardunbide egokien zerrenda osoa **eranskinean** jasota dago, eta xehetasunak hemen daude eskuragarri:

- <https://www.ihobe.eus/jardunbide-egokiak>
- Jardunbide egokiak birziklatutako materialen erabileran obra zibilean Euskadin
- Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburu Praktikoak. Euskal administrazio publikoak ezartzeko eredu eta adibideak
- Euskadin ingurumenaren aldetik modu jasangarrian eraikitzea eta birgaitzea. Ingurumen-bikaintasuneko 13 kasu

Bestalde, **Euskadik atzerritik jaso dituen aintzatespena eta sariak** laguntza eta motibazio gehigarri bat izan dira egiten ari den lana sendotzeko.

## 6. Etorkizunari begira


*Ikasitakoak bizkar-zorroan sartuta eta begirada 2030ean jarrita, erronka berriek markatzen dute jarraitu beharreko bidea*

Euskadiko erosketa eta kontratazio berdearen bigarren programa (2020) ixteak **etapa berri** baten hasiera markatzen du: **hirugarren programa** bat 2030era begira, euskal ingurumen- eta ekonomia-politikekin eta Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin bat etorritz.

Hirugarren programaren helburua **Euskadik erosketa berdean izan duen bilakaera positiboa bizkortzea** da, 2030 Agendaren 12.7 helburua ahalik eta gehien garatzeko: "Jasangarri diren erosketa publikoko praktikak sustatzea, politika eta lehentasun nazionalekin bat etorritz", eta haren 12.7.1 adierazlea.

Hirugarren programak Euskadik dituen **erronkei heldu** beharko die, ikuspegi integratzaile batetik eta bere eginkizun estrategikoa indartzeko asmoz. Hauek dira erronkak:

1. Erosketa publiko berdea finkatzea euskal administrazio osoan
2. Euskal sektore pribatuan erosketa berdea inplementatzea
3. Merkatu berdea garatzea kalitatezko euskal eskaintza lehiakorrarekin
4. Kontratazio berdeak Euskadin duen inpaktua eta onurak neurtzea
5. Inplikaturako eragileen sarea indartzea



Bide berriak, ikaskuntza desberdinak eta ahalegin bera izango dituen etapa berri bat izango da: **erosketa eta kontratazio berdearen historiak aurrera jarraitzen du Euskadin.**

# 7. Eranskinak

## Argitalpenen zerrenda gaiaren arabera

### Erosketa eta kontratazio publiko berde hobea lortzeko argitalpen praktikoak

1. Ohiko akatsak kontratazio publikoan ingurumen-irizpideak txertatzean
2. Ingurumen-ziurtagiriak erosketak eta kontratazio publikoan erabiltzeko gida praktikoa
3. FSC eta PEFC ziurtagiriak eta kontratazio publikoan duten erabilera
4. Kazetarientzako erosketak publiko berdeari buruzko gida azkarra
5. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburu Praktikoak. Euskal administrazio publikoak ezartzeko eredu eta adibideak

### Eremu berrietako argitalpenak

6. Erosketa Publiko Berdearen eta Bizi-zikloaren Kostuen Azterketaren Gidaliburua
7. Berrikuntzaren Erosketa Publikoa
8. Bizi-zikloaren kostuak eta CO<sub>2</sub> isuriak ebaluatzeko tresna

### Erosketa berdearen onurei buruzko argitalpenak eta dibulgazioak

9. Euskadin erosketak publiko berdearekin bat egiteko gakoak
10. Udalerrietan erosketak publiko berdea ezartzeko oinarritzko gida
11. Ingurumenarekiko Erosketa Publiko Arduratsuaren onurak
12. Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdea, baliabide naturalak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko bidea

### Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriari buruzko argitalpenak

13. Eraikingintza eta birgaitze jasangarriaren gida. 2015eko edizioa eguneratua
14. ERAS aplikazioa: Eraikingintza eta Birgaitze Jasangarriaren Gidak ezartzeko tresna
15. Jardunbide egokiak birziklatutako materialen erabileran obra zibilean Euskadin
16. Eraikuntzan material birziklatuak erabiltzeko gidaliburua
17. Eraikingintza Jasangarriko Gidaliburuak. Eraikin industrialak
18. Eraikingintza Jasangarriko Gidaliburuak. Merkataritza-arloko eraikinak
19. Ingurumenaren aldetik modu jasangarriaren eraikitze eta birgaitzeko gidaliburua: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio-eraikinak eta -bulegoak
20. Euskadin ingurumenaren aldetik modu jasangarriaren eraikitzea eta birgaitzea. Ingurumen-bikaintasuneko 13 kasu

### **Eraikingintza eta eraikuntza jasangarriari buruzko argitalpenak**

21. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-lanetan agregakin birziklatuak erabiltzeko jarraibideen eskuliburua

### **Programa eta konpromiso politikoei buruzko argitalpenak**

22. 4 urteko jarraipen-txosten: 2016, 2017, 2018 eta 2019. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa. 2019ko jarraipen-txostena

23. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020ko Programa

24. Eusko Jaurlaritzaren Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa 2011-2014

25. Gobernuaren Erabakia Kontratazio Jasangarriari buruz

### **Beste argitalpen batzuk**

26. Joeren txostenak (hiru hilean behin argitaratuak)

27. Udalsarea 21 koadernoak, 20b zk. Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua

28. Produktuen ingurumen-etiketak. Produktuak hobetzeko ingurumen-irizpideei buruzko gida

## Euskal administrazioen jardunbide egokien zerrenda

Elikadura	
Bidezko merkataritzako produktuak dituzten Gabonetako loteak erostea	Bilboko Udala
Bidezko merkataritzako kafea, eta hondakinak murriztea edari beroak saltzen dituzten makinetan	Donostiako Udala
Elikadura ekologikoa Usurbilgo Haur Eskolan	Usurbilgo Udala
EKOLAPIKO, elikadura ekologikoa eta orekatua Donostiako Udalaren hiru haur-eskolatan	Cristina Enea Fundazioa
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako edariak eta aperitiboak saltzeko makinaren zerbitzuaren ingurumen-egokitzapena	Polizia eta Larrialdien Euskal Akademia
Aholkularitza	
Ingurumen-irizpideak txertatzea erosketa berdearen arloko laguntza teknikoa emateko kontratua kontratatzean eta gauzatzean	Ihobe
Kontsumo arduratsua	
"ZERO plastiko" Bilboko Euskalduna Jauregiko catering-eta jatetxe-zerbitzuetan	Euskalduna Jauregia
Udalaren lokal bat modu pribatiboan emateko baldintza-agiriaren ingurumen-egokitzapena, Maruri-Jataben txikizkako denda "berde" bat ezartzeko	Maruri-Jatabeko Udala
Mutualiak sarera konektatutako ur araztuaren iturrien eta ontzi berrerabilgarrien hornidura ezarri du, bere zentroetan plastikoa ezabatzeko programaren barruan.	Mutualia
Eraikingintza / Eraikuntza jasangarria	
Arrankudiagako (Bizkaia) Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko jasangarritasuneko 21 Bulegoa ingurumen-irizpideen arabera egokitzea	Udaltalde 21-Nerbioi Ibaizabal
Durangoko Udalaren obra- eta zerbitzuen baldintza-agirien ingurumen-egokitzapena	Durangoko Udala
Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) udal-eraikina eraberritzea eta zabaltzea, ingurumenaren aldetik jasangarria den eraikingintzako irizpideen arabera	Zornotzako Udala
Europa Jauregiaren birmoldaketa. II. fasea	Vitoria-Gasteizko Udala
Babes ofizialeko 26 etxebizitza Durangon	Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza Saila

<b>Eraikingintza / Eraikuntza jasangarria</b>	
Endrike Knörr Haur Eskola	Vitoria-Gasteizko Udala
Arrain-lonja berria	Bermeoko Udala
Portugaleteko osasun-zentroa	Osakidetza
Plentzia-Mungia ardatzaren eraikuntzaren 2. fasea	Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Lanetako Saila
EEHetatik datozen materialak erabiltzea hainbat eraikuntza-soluziotan: Enekuriko bikoizketa, Fatima-Ibarrekolanda tartea	Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Lanetako Saila
Txorierriko korridorean zabalgunea hobetzea agregakin birziklatuaz	Bizkaiko Foru Aldundia. Herri Lanetako Saila
I+G+b proiektua. Orkoneran (Ortuella) agregakin birziklatua erabiltzeari buruzko arau-aurreko ikerketa	Ihobe
Durangoko Bidegorrien Sarea	Durangoko Udala
Hegoalde bidearen luzapena -2. fasea	Durangoko Udala
Kirol anitzeko pistak eraikitzea Zabalganan	Vitoria-Gasteizko Udala
Skate pista Judimendi auzoan / Santa Lucía	Vitoria-Gasteizko Udala
MONPASEko urpeko hustubidera sartzeko pista	Añarbeko Urak
Bilboko Udalaren jarduketak material birziklatu anizkoitzen baldosa hidraulikoekin	Bilboko Udala
<b>Ekipamendu informatikoak</b>	
Ingurumen-irizpideak betetzen dituzten funtzio anitzeko inprimagailuak erostea	Arrasateko Udala
<b>Estrategia</b>	
Fotokopiagailuen Erosketa Publiko Berdearen estrategia integrala	Bizkaiko Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Saila
Papera eta paperezko produktuak erosteko eta erabiltzeko estrategia integrala	Arrasateko Udala
Baldintza administratiboen agirietan ingurumen-eskakizunak eta -irizpideak ezartzeko hurrenkera	Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
Bilboko argiteria publikoan energia aurrezteko plan estrategikoa	Bilboko Udala

<b>Estrategia</b>	
Jasangarritasuna sustatzeko ekintza-programa	Gipuzkoako Foru Aldundia
Erosketa eta Kontratazio Berdea Ihobe Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoan ezartzeko estrategia	Ihobe
<b>Prestakuntza</b>	
«Euskal Administrazioaren erosketa eta kontratazioetan ingurumen-irizpideak sartzea» ikastaroa	Ihobe
Erosketa eta kontratazio publiko berdearen arloko prestakuntza-ikastaroa administrazioko langileentzat	Gipuzkoako Foru Aldundia
Produktu ekologikoei eta txikizkako merkataritza tradizionalen ingurumenean inpaktu txikiena duten produktuei buruzko ikastaroa	Legazpiko Udala
Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten Debabarreneko ikastetxei erosketa berdeari buruzko prestakuntza ematea	Debegesa
<b>Energiaren kudeaketa</b>	
Kiroletako Udal Patronatuaren (KUP) eraikin, instalazio eta ekipamenduetako instalazio termikoen energia-zerbitzuak eta mantentze-lanak kontratatzea, erabateko bermearekin	Donostiako Udala
Gasteizko Udalaren eraikinetako berokuntza, klimatizazio eta ur bero sanitarioko instalazioen energia-kudeaketa eta mantentze-lanen kontratua, erabateko bermearekin	Vitoria-Gasteizko Udala
Eusko Legebiltzarreko eraikin eta garajeetarako % 100 iturri berriztagarriko energia elektrikoaren hornidura	Eusko Legebiltzarra
<b>Lorezaintza</b>	
Ureztatzean aurrezte eta efizientzia izatea berdeguneak zaintzeko lanetan	Vitoria-Gasteizko Udala
Ingurumen-irizpideak betetzen dituen lorezaintza-zerbitzua kontratatzea	Balmasedako Udala
<b>Hondakinen garbiketa, bilketa eta garraioa</b>	
Hiriko garbiketa publikoko zerbitzua kontratatzea eta hiri hondakin solidoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua kontratatzea	Vitoria-Gasteizko Udala



<b>Mantentze-lanak</b>	
Automobilak, kamioiak eta ibilgailuen makineria mantentzeko zerbitzua ingurumen-irizpideekin kontratatzea	Errenteriako Udala
<b>Material xurgatzailea</b>	
Haur-hezkuntzako zentroetan pixoihal berrerabilgarriak erostea eta erabiltzea	Donostiako Udala
<b>Bulegoko materiala</b>	
Ingurumen-irizpideak betetzen dituen bulego-materiala eskuratzea	Ihobe
Bulego-materiala hornitzeko baldintza-agiriaren ingurumen-egokitzapena	Gipuzkoako Foru Aldundia
<b>Altzariak</b>	
Bulegoko altzariak erostea	URA, Uraren Euskal Agentzia
Eusko Jaurlaritzaren standaren kontratazioa «GEO2 2008» garapen jasangarriaren azokan	Ihobe
<b>Mugikortasun jasangarria</b>	
Kirol Busean Elkarrekin AIEk mugikortasun-premiak birplanteatu ditu eta bere kudeaketa eskaeraren arabera optimizatu du	Kirol Busean Elkarrekin
Mugikortasun jasangarrirako zerbitzuak	Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitatea
<b>Argitalpenak</b>	
Lurralde Historikoko Aldizkari Ofiziala formatu elektronikoan	Arabako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Sailaren argitalpenak editatzeko zerbitzuen kontratuaren ingurumen-egokitzapena.	Bizkaiko Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Saila
<b>Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua</b>	
Ingurumen-irizpideak txertatzea Nerbioi-Ibaizabaleko etxeko hondakinak biltzeko eta garraiatzeko lizitazioan	Udaltalde 21-Nerbioi Ibaizabal

<b>Garbiketa-zerbitzuak</b>	
Ingurumen-irizpideak txertatzea garbiketa-zerbitzua kontratatzeke baldintza-agirietan	EITB
Debabarrena Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) garbiketa-zerbitzuaren ingurumen-egokitzapena	Osakidetza
<b>Sistematizazioa</b>	
Ereduzko baldintza-agiriak prestatzea	lhobe
Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen eta Etxerako Ingurumen Jardunbide Egokien Gida	Donemiliagako Udala
Ingurumenaren aldetik Arduraz Erosteko Gida Praktikoa	Azpeitiko Udala
Hornitzaileak homologatzea ekipamendu eta osagai informatikoak hornitzeko	lhobe
Hornitzaileak homologatzea kopiatze- eta koadernatze-lanak egiteko	lhobe
Jarraibidea, gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk Administrazio orokorraren, instituzionalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeen kontratazioetan txertatzeari buruzkoa	Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Sails
Kontratazio publiko elektronikoa Eusko Jaurlaritzan	Eusko Jaurlaritza. Ekonomia eta Ogasun Sails
Ingurumen-irizpideak estandarizatzea baldintza-agirien erduetarako	Durangoko Udala
Eskualdeko erosketa- eta kontratazio-zerbitzua jasangarritasun-irizpideekin	Udaltalde 21-Nerbioi Ibaizabal
Baldintza-agirien ingurumen-egokitzapena	Donostiako Udala
Kontratazio Zentrala eta bere esparru-akordioen ingurumen-egokitzapena	Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumen-irizpideak dituen Kontratazio Zentrala	Bizkaiko Foru Aldundia. Ogasun eta Finantza Sails
Erosketa txiki berdeak sistematizatzea ITELAZPIn: Gida bat tresna gisa	Itelazpi
<b>Ehunkiak</b>	
Udaleko langileentzako jantziak eta laneko oinetakoak hornitzeko baldintza-agiria	Donostiako Udala

Ibilgailuak	
Gasolina-elektrizitate motordun automobil hibridoak erostea	Donostiako Udala
Jasangarritasun-irizpideak betetzen dituzten ibilgailuak erostea	Euskal Trenbide Sarea / Red Ferroviaria Vasca (ETS/RFV)
Flexi-fuel ibilgailuak erostea eta bestelako ingurumen-irizpideak ezartzea ibilgailuak hornitzeko kontratuetan	Eusko Jaurlaritzak. Ekonomia eta Ogasun Saila
Biodieseldun autobusen zerbitzua	Bilboko Udala
Pneumatiko-hornitzaileen baldintza-agiriaren ingurumen-egokitzapena	Arabako Foru Aldundia
Hiri-autobusen hornidura kontratatzea	Donostiako Tranbia Konpainia

